734/2026 EBAZPENA, azaroaren 11koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiarena, "Egonaldiak 2026-27", Nafarroako ikastetxeetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako A, B eta D ereduetako ikasleei zuzendutako euskarazko murgiltze programarako ohiz kanpoko deialdia onartzen duena 2026-2027 ikasturterako.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du eta ohiz kanpoko deialdi hori onartzeko proposamena egin du, 2027ko urtarriletik ekainera bitartean euskaraz murgiltzeko programarako gehienez ere 174 plaza proposatuz, B eta D ereduetako Lehen Hezkuntzako Bigarren Hezkuntzako 1. mailako eta A ereduko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle-taldeentzat.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Nafarroako ikastetxeetako B eta D ereduetako Bigarren Hezkuntzako 1. mailako eta A ereduko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleei zuzendutako “Egonaldiak-Estancias en euskera 2026-27” euskarazko murgiltze programarako ohiz kanpoko deialdia onartzea. Deialdia 2026-2027 ikasturtean eginen da, eta oinarriak ebazpen honen eranskinean jasota daude.
Egonaldiak, 2027ko urtarrilaren eta ekainaren artean egingo dira.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskina wwww.navarra.es (Tramiteak) helbidean argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berori aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Hezkuntzako kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta bere eranskina Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kontu-hartzailetza delegatuari, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari, Euskara Atalari, Kudeaketa Juridiko Administratiboaren Atalari, Kontabilitate-Kudeaketa Bulegoari, “Centro Navarro de Aprendizaje Integral, S.A” (CNAI)-ri eta Lekarozko "Valle de Baztan " gazte aterpetxeari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko azaroaren hamaikan.

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE
HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González